




LEMOA



ARMARRIAREN DESKRIBAPENA

Zilarrezko hondoan San Andresen gurutze urdina eskoian zumar-orri urdina dauala eta ezkerrean zitori horia, biak urdinean.


DESCRIPCIÓN DEL ESCUDO

En campo de plata, un aspa de azur acompañada a su diestra de una panela y a su siniestra de una lis, ambas también de azur.

AITAMEN HISTORIKOA

Bediako merindadeko eleizatea. Merino batek eta fidel bik zuzentzen eben eleizatea eta Gernikako Batzar Nagusietan 64. eserlekua eta botua egokiozan. Erdi Aroan Bizkaiko jaunen menpe egozan zergapeko nekazariak Aldape, Agarre, Atutxa eta Atutxola dorretxeak eta Andra Mari eleiza egin zituen. Eleiza berreraiki eta handiagotu egin eben 1758an. Eleiza zuzentzeko abade onuradun bi egozan; onuradunak erregeak proposatzen zituan eta hamarrekoak be erregearenak ziran.

1704ko bagilaren 28an Jaurerriko Batzar Nagusiek emon eben aginduari jarraituz, Bizkaia osoan fogerazinoa egin zan Jaurerriko gastu orokorren banaketa egiteko, eta fogerazino horren arabera urte horretan Lemoan laurogeita bi fogera egozan, eta Bediako kolazinoan berrogeita lau; guztira 126.




RESEÑA HISTÓRICA

Anteiglesia de la merindad de Bedia. Estaba regida por un merino y dos fieles que ocupaban el voto y asiento nº 64 en las Juntas Generales de Gernika. Durante el Medievo se levantaron las casastorre de Aldape, Agarre, Atutxa y Atutxola y la iglesia parroquial de Santa María, fundada por los labradores censuarios de los señores de Bizkaia. Esta fue reedificada y ampliada en 1758, estando atendida por dos beneficiarios curas cuya presentación así como los diezmos pertenecían al rey. En el año 1704 contaba con ochenta y dos hogueras y por la colación de Bedia con cuarenta y cuatro, haciendo un total de 126, según se desprende de un fogueramiento efectuado en todo Bizkaia en el citado año, decretado por la Junta General del Señorío con fecha 28 de junio, a fin de poder hacer los repartimientos de los gastos generales del Señorío.

IKURRIÑA

Deskribapena: karmin kolorekoa erdian armarrria dauala.

Zutoihala: triangeluarra eta karmin kolorekoa, erdian armarrria dauala.



BANDERA

Descripción: carmesí con el escudo en el centro.

Estandarte: triangular y carmesí con el escudo en el centro.